

DONEJAKUE BIDEA EUSKADIN
EL CAMINO DE SANTIAGO EN EUSKADI




COMENDIOAK
RECOMENDACIONES

Planifikatu hurrengo eguneko etapa: Erromesen aterpe asko udan bakarrik irekitzen dituzte. Komeni da Bidea bakarrik ez egitea. Ez ahaztu dokumentazioa, kredentziala eta dirua -edo kreditu-bartela-, eta kontu handia izan baliozko objektuekin. Eraman etapa bakoitzerako janari eta edari nahikoa eta larrialdietako botika-kutxa. Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta. Komeni da mugikorraren bateria ongi beteta eramatea. Zure segurtasunerako, jarraitu seinale ofizialei. Trazadura diferente bat adierazten duten gezi horiirik aurkituz gero, ez jarraitu halakoei. Errespetatu ingurunea eta gainerako erromesak.



Bilbotik abiatuta, lehen egunekoekin zerikusirik ez duten parajeak zeharkatuko ditu Bideak: Portugaletera iritsi arte, basorik ohikoena zementuzkoak izango dira, biderik ohikoena asfalto eta baldosazkoak, eta soinurik ohikoena, berri, hiri moderno batekoak. Bilbo zeharkatu bezain laster, Kobetamendira igo behar da. Mendiak hegoaldekoak izan daitezke, eta Nerbioi haranaren ikuspegi bikaina eskaintzen du. Bizkaiko alde horrek XIX. mendearen amaieratik izan zuen hazkunde ikaragarriak goitik behera baldintzatu du antzina erromes ibili zirenek ezagutu zuten ingurunea. Oraindik badiraute erreferentzia esanguratsu batzuek, hala nola Cadagua ibaiak -Bilbo eta Barakaldoren arteko muga naturalak- edo Santa Agate gaitzadak eta ermitak, baina industria-paisaiak izango dira nagusi (eta horiek ere badute beren balioa).


A partir de Bilbao, el Camino atravesará parajes muy diferentes a los de las primeras jornadas: hasta Portugalete, los bosques más comunes serán los de cemento; los senderos más habituales, los de asfalto y baldosa; y los sonidos que le acompañarán, los de una urbe moderna. Nada más atravesar la capital vizcaína, se asciende al monte Kobeta, que cierra la ciudad por el sur y regala una ilustradora panorámica del valle del Nervión. El espectacular crecimiento que experimentó esta parte de Bizkaia desde finales del siglo XIX ha condicionado severamente el entorno que conocían quienes peregrinaban antiguamente. Perduran referencias significativas como el río Cadagua - frontera natural entre Bilbao y Barakaldo - o la calzada y la ermita de Santa Águeda, aunque la norma serán los paisajes industriales, que también tienen su valor.



Bidezatia / Tramo
BILBAO >
TELLAETXE (BARAKALDO)

km 0 Bilbo. Done Jakue katedraletik Dendarikale kalera irtengo gara, eta itsasadarra gurutzatuko dugu San Anton zubitik. Ondoren, San Frantzisko kalea hartuko dugu Zabalburu plazaraino, eta Autonomia kaletik jarraituko dugu Basurto-Kastrexana errepidea hartu arte. Bertatik, Kobetamendira abiatuko gara Lezeaga kaletik. Erromesen aterpetxea utzi ondoren, ezkererako errepidea hartu eta berehala utziko dugu, eskuinetik behearantz egiten duen bide batetik jarraitzeko. Mendi-magaletik jaisten hasiko gara hainbat pista hartuta, eta Kastrexana auzoko goialdera iritsiko gara. Behera egiten jarraituko dugu eta, tunel txiki baten azpitik pasatu ondoren, Bilbo-Balmaseda errepidea zeharkatuko dugu zebra-bide batetik, Bilbo eta Barakaldoren arteko muga naturala den Cadagua ibaiaren gaineko Deabruaren Zubitik oso hurbil.

km 6,5 URGOZO (BARAKALDO). Urgozo auzoan sartu bezain laster, Balmasedarantz abiatzen den eta Burgosen Frantziako bidearekin bat egiten duen bidera iritsiko gara. Bide hori hartu ordez, kostaldeko bidetik jarraituko dugu eta, eskuineko errepide txikia hartuta, Santa Agate ermitara igotzen den Erdi Aroko galtzada ikusiko dugu berehala. Ermitaren ondoan, indarrak berritzeko aukera emango diguten iturri bat eta mahai bat aurkituko ditugu. Ondoren, Gurutzeta auzorantz behera egiten hasiko gara, ur-depositu batera iritsi arte. Depositua ezkerrean utzi eta behera egiten jarraituko dugu. Gurutzetako lehen etxetara iristean, ezkerreara egingo dugu eta, futbol-zelaiaren ondoan, Gorostiza kiroldegira jaisten den bidea hartuko dugu. Kiroldegiaren ondoan, iturria, mahaiak eta itzal ederra eskainiko dizkigun Tellaetxe parkea dago, Castaños ibaiaren ondoan.



Donejakue Bidea Camino de Santiago
7A El Camino de la Costa
BILBAO PORTUGALETE
Km. 19,6 445m. 4h. 45'
EUSKADI BASQUE COUNTRY



EZ GERATU EZAGUTU GABE! ¡NO TE LO PIERDAS!

Santa Agate ermitara iritsi aurretik, Erdi Aroko gaitzada-tarteak baso txiki bat zehartzten du, eta benetako oasia izango da hiri-izaera nabarmeneko etapa honetan.



Justo antes de alcanzar la ermita de Santa Águeda, el tramo de calzada medieval atraviesa un pequeño bosque que se convertirá en un verdadero oasis en esta etapa, por lo demás muy urbana.



Bizkaiko Zubia Gizateriaren Ondare izendatu zuen Unescok. Portugalete eta Getxo lotzen ditu, eta munduko ordainpeko lehen transbordadore-zubia izan zen. Gaur egun, goiko pasabidera igotzen den igogailu bat dago, eta itsasadarren bokalearen ikuspegi paregabea eskaintzen du. Beste aukera bat itsasadarra transbordadorean zeharkatzea eta Getxoko hareatza eta pasealekuetara hurbiltzea da.

El Puente Bizkaia, declarado Patrimonio Mundial por la Unesco, une la villa de Portugalete con Getxo y fue el primer puente transbordador de peaje en el mundo. Actualmente dispone de un ascensor que permite ascender a su pasarela superior ofreciendo unas vistas inmejorables de la desembocadura de la ría. Otra opción es cruzarlo en el transbordador para acercarnos a los arenales y paseos de Getxo.



Portugaleteko alde zaharra monumentu-multzo deklaratu zuten eta bertan pintxo-tabernak eta giro handiko kaleak daude gozatzeko; horrez gain, hainbat eraikin bisita ditzakegu: Salazar dorrea edo Andra Maria basilika. Herri horrek eskaintzen digun beste aukera bat Burdinazko Kaiaren eta Industriaren Museoa (Rialia) artean itsasadarra zeharkatzen duen pasealekua da.

En el casco viejo de Portugalete, declarado conjunto monumental, podemos disfrutar de bares de pintxos y calles con mucho ambiente además de visitar edificios como la Casa-Torre de Salazar o la basilica de Santa María. Otra de las opciones que nos ofrece la villa es el paseo que recorre la orilla de la ría entre el Muelle de Hierro y el museo Rialia de la Industria.



TELÉFONO INTERESGARRIAK TELÉFONOS DE INTERÉS

Bilboko Turismo Bulegoa <i>Oficina de Turismo de Bilbao</i>	94 479 57 60 94 478 92 02
Barakaldoko Turismo Bulegoa (BEC) <i>Oficina de Turismo de Barakaldo (BEC)</i>	94 499 58 21
Portugaleteko Turismo Bulegoa <i>Oficina de Turismo de Portugalete</i>	94 472 93 14
Claret Enea aterpea <i>Albergue Claret Enea</i>	94 651 01 71 609 087 620
Donejakue bideen lagunen elkarte <i>Asociación de Amigos del Camino de Santiago</i>	94 679 20 99 687 529 606
Bizkaiko Aterpetxezain Boluntarioen Elkarte <i>Agrupación de Hospitaleros Voluntarios de Bizkaia</i>	609 031 526

Larrialdiak
Emergencias



Bidezatia / Tramo TELLAETXE > PORTUGALETE



km 12,4--**TELLAETXE (BARAKALDO)**. Parkea atzean utzi ondoren, espaloitik eskuinera jarraituko dugu Retuerto auzoraino. N-634 errepidearen azpitik igaroko gara, eta, ondoren, Jesusen Bihotzen elizaren atzetik, Euskadi Hiribidetik jarraituko dugu. Autobidearen azpitik pasatu eta berehala, biribilgune bat ikusiko dugu. Aurrera egingo dugu hiribidean zehar eta, ondoren, Gernikako Arbola kalea hartuko dugu. Done Bikendi elizara iritsi ondoren, Sestaorantz abiatuko gara eta Barakaldoko hilerritik hurbil igaroko gara. Ondoren, Galindo ibaiaren eskuinaldetik jarraituko dugu tarte batean, eta ibaia zeharkatu egingo dugu Lasasarre kiroldegitik hurbil.

km 17,8--**SESTAO**. Ibaia zeharkatu ondoren, trenbidearen azpitik pasatuko gara eta ezkerrean egingo dugu, hirigintza-berroneratzeko prozesuan murgilduta dagoen Simondrogasko eremua zeharkatuta. Seinaleei jarraituta, Sestao zeharkatuko dugu J. A. Agirre y Lekube Kale Nagusitik, Udaletxera iritsi arte. Bertan, eskuinera egingo dugu Chávarri eta Sotera de la Mier Kaleetarantz, eta Portugaleteko Andra Maria Basilikara iritsiko gara zuzenean. Itsasadarren ikuspegi ederraz gozatu ahal izango dugu bertan.

km 12,4--**TELLAETXE (BARAKALDO)**. Pasado el parque, seguimos por la acera a la derecha hasta el barrio de Retuerto. Pasamos bajo la carretera N-634 y después, tras la iglesia del Sagrado Corazón, seguimos por la Avenida de Euskadi. Nada más pasar bajo la autopista, llegamos a una rotonda en la que seguimos de frente por toda la avenida, para luego continuar por la calle Gernikako Arbola. Una vez alcanzada la iglesia de San Vicente encaminamos nuestros pasos hacia Sestao, pasando junto al cementerio de Barakaldo. Continuamos por la margen derecha del río Galindo, para cruzarlo cerca del polideportivo de Lasasarre.

km 17,8--**SESTAO**. Una vez cruzado el río, pasamos bajo las vías del ferrocarril y giramos a la izquierda para atravesar la zona de Simón Drogas, en proceso de regeneración urbanística. Seguimos las señales para atravesar Sestao por la Gran Vía J.A. Aguirre y Lekube hasta el ayuntamiento, donde giramos a la derecha en dirección a las calles Chávarri y Sotera de la Mier, que nos llevarán directamente a la Basílica de Santa María de Portugalete, mientras disfrutamos de una bonita panorámica de la Ría.

www.euskaditurismo.eus



KONTUAN HARTU BEHARREKOAK A TENER EN CUENTA



• Bilbo Metropolitarran zeharkatzeko aldaera ez-ofizial ugari daude. Ibilbide ofizialari jarraitzea gomendatzen dizuegu, Bideko hainbat gune historiko aurkituko dituzuelako, adibidez Deabruaren Zubia edo Santa Ágedako gaitzada.

• Existen *infinidad de variantes no oficiales para atravesar el Bilbao Metropolitano*. Os recomendamos seguir el trazado oficial que os permitirá conocer hitos históricos del Camino tales como el puente del Diablo o la calzada de Santa Águeda.

• Barakaldon gaudela, ostalaritza-eskaintza ona eta askotariko dendak aurkituko ditugu Gernikako Arbola kalean eta Done Bikendi elizaren ondoan.

• A nuestro paso por Barakaldo, en la calle Gernikako Arbola y los alrededores de la iglesia de San Vicente encontramos buena oferta hostelera y tiendas de diverso tipo.



IKURRAK LEYENDA

Iturria Fuente	Erromesen aterpetxea Albergue de peregrinos	Ospitalea Hospital
Atsedengunea Área recreativa	Bestelako aterpetxeak Otros albergues	Medikua Servicio médico
Eraikin erlijiosoa Edificio religioso	Ostatu turistikoak Alojamientos turísticos	Farmazia Farmacia
Interes puntua Punto de interés	Diru kutxa Cajero	Turismo bulegoa Oficina de turismo
Jatetxea Restaurante	Denda Tienda	Donejakue bideen lagunak Asociación de Amigos del Camino de Santiago
		Munduko Ondarea Patrimonio Mundial

